

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Haurrei eta nerabeei arreta emateko lantalde berri batek estaldura emango die Iruñerriko eta Nafarroaren iparraldeko familiei

Aste honetan, beste zerbitzu bat jarri da martxan, 12 profesionalekin, eta Tuteran, Lizarran, Tafallan eta Iruñean daudenei gehitzen zaie

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 1

Eskubide Sozialetako departamentuak, Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren bitartez, Haurrei eta Nerabeei Arreta emateko lantalde (HNAL) berri bat jarri du martxan aste honetan, eta Iruñerriko eta Nafarroaren iparraldeko eta ipar-ekialdeko haurrak, nerabeak eta familiak artatuko ditu. Lantalde berri horrekin, zerbitzu horren estaldura Foru Komunitate osora zabaltzen da, jada Tuteran, Lizarran, Tafallan eta Iruñean baitaude halako lantaldeak.

Diziplina anitzeko lantaldea 12 profesionalek osatzen dute, zeinak psikologian, gizarte-lanean eta hezkuntzan/gizarteratzean baitaude trebatuta, eta laguntza emango die oinarrizko gizarte-zerbitzuei; beren eragin-eremuko gizarte-, hezkuntza- eta osasun-agentteei; eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari.

Lantalde horrek artatuko ditu, batetik, aipatutako eremuetan bizi diren 18 urtetik beherako haurrak eta nerabeak—haiei dagokienez, egon daitezkeen babesgabetasun-egoerak aztertzen eta baloratzen hasi behar da—, eta, bestetik, babesgabetasun-egoeran daudela jo den eta oinarrizko zerbitzuek arreta espezializatua emateko baliabiderik ez duten eremuetan dauden familia-nukleoak. Kalkuluen arabera, 110 familia eta 130 adingabe artatu ahal izango dituzte, batez beste, aldi berean—urtean, 180-200 familia eta 250-300 adingabe izan daitezke, batez beste—. Babesgabetasunaren tipologiaren, larritasunaren eta arriskuaren arabera izango da arreta, bai eta babesgabetasunetik ateratzeko aurreikuspenaren eta kolektibo horiek dituzten babes-faktoreen arabera ere.

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak oso begi onez ikusi du zerbitzu berri hori martxan jartzea. “Pentsaezina zen zenbait hamarkadatan zerbitzu hau martxan jarri ez izana Nafarroako familia eta adingabe guztiak berdintasun-baldintzetan artatzeko”. “Zerbitzu berri honek inbertsio sozial handia dakar berekin, baina funtsezkoa da, haur zaugarri eta babesgabeenekin egingo baitugu lan; orain, prebentzioak saihestuko du haur horiek, etorkizunean, larritasun eta gatazka handiagoko egoeretan egotea”.

Helburuak

Zerbitzu horren helburuak dira gizarte-zerbitzuei eta haien eragin-eremuko gizarte-, komunitate-, hezkuntza- eta osasun-eragileei laguntzea prebentzioan, hautemate goiztiarrean, ikerketan, balorazioan eta esku-hartzean, eta haurrak babesteko lan-sare bat eta haien eremuko haur zaugarrien beharrak asetzeko behar diren baliabideak sortzea. Laguntza emango dio, halaber, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari zaugarritasun handieneko egoerak hautematen eta premiaz artatzen babesgabetasuna baloratzeko prozesuetan, hirugarren mailako prebentzioan eta kalteak konpontzean esku hartuz.

Zerbitzu hori Pauma erakundeak kudeatuko du, eta Gizarte Zerbitzuek edo Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzak bideratuta jaso ahal izango da. Zerbitzuaren kontratua 4 urtez egongo da indarrean. 396.182,45 euroko kostua izango du 2018. urtearen amaierara arte, eta 610.977 eurokoa hurrengo urteetako bakoitzean, 2022an amaitzen den arte.